

F. Ezerian: kaitatea eta produktibitatea nobelzen

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko ekainak 4

195. zenb.

Zaldibarko Futbitoa
Trikiti
txapeldun!

Erreportaia
AEDko
'Gazte
Mobida'

Ekainak 6

Hauteskunde
eguna



Joxe Joan González de Txabari



Mikel Atxaga, José Luis Zaldúa, Ramón Azurza



Esther Larrañaga, Josu Jon Imaz, Itziar Etxeberria,
Juan Vicente Erasquin, Victoria Aldaz

EUSKADI HOBETZEKO

**EMAN
BOTOA**  **EAJ
PNV** ri



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jateflea!



ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Ezkontzera doan neska bati karta

Alazne:
Datorren urtean ezkontzeko asmotan zerala aipatu duzu lehen. Eta zorionerako izango ahal dela esan dizut.

Ez dakit zer pentsatuko zenuen honetaz, baina hori esan dizut zorioneko izateko baldintzak betetzen diren zalantza dudalako, jakinik Manuk ez dakiela euskaraz, ez duela ulertzen eta ez duela oraingoz ikasteko asmorik ere.

Gizakion artean sortzen diren harremanetan adiskidetasun sakon eta goren mailako harremanak suposatzen ditu ezkontzak, nere ustez.

Komunikazio bat ezartzen denean, bakoitzak ematen du berea eta hartzen du bestearena. Honela, elkarren ondasuna

aberasten da. Baina bietako batek dituen bizipenak eta esperientziak besteak onartzen ez baditu, kasu hontan zeu euskalduna izatearena, alegia,

- elkarbizitza eta komunikaziotik kanpo gelditzen da arlo hori,
- ezin da bizipen hoietaz baliatu eta aberastu onartzen ez dituen,
- muriztu egiten ditu bizipen horiek lehendik dituenak, edo beste gune bat bilatzen du horiek lantzeko.

Kasu batean, zein bestean bere eragina izango du elkarbizitzan.

Ezkondu aurretik, jai bihurtzen du maitasunak elkar topaketa, eta gehienetan, ez da eguneroko bizitzan gauzatzen topaketa hau, denbora librean baizik.

Mila gorabehera sortzen dira ordea eguneroko bizitzan ezkondu ondoren, eta horiei aurre egiteko, beharrezkoa da elkarrenganako errespeto, adiskidetasun eta maitasun sakon eta zabala.

Elkarrekin osatzeko famili proiektuan bietako baten nortasunaren alderdi bat kanpoan uzten bada, zer finkotasun izango du elkarbizitzarako oinarri hau jasotzen ez duen proiektuak?

Barkatuko didazu karta hau idaztean izan dudan atrebentzia, baina asko istimatzen zaitut zuen elkarbizitzako proiektuaren zimenduei eragiten dien oztopo hau azaldu gabe gelditzeko. Gainera, zure eta nere inguruko euskal gizartean badu eraginik ere.

Edozein dela ere zure iritzia, nahi baduzu prest nauzu gaiaz hitzegiteko.

Bihotzez,

RUFINAK

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 - ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40


Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitateak:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioak:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Arnton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egues. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba



ZENBAKI

Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

ZENTRO

PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotritzitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

Memesa
79 42 22

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

••••

Mahatsondo-ari azken agurra!

Zer egin dizute? Zein izan da zure errua? Ez dut ulertzen. Gure bizi guztian ezagutu zaitugu sendo, berde eta eder. Zure gereizpean igaro ditugu ordu eta orduak zeure adar luzeengandik babestua. Apaindu duzu ingurunea. Margolari askok pintatu zaituzte. Eta gaur ikusi ditudanean Uda-berriko zeure kimu berri guztiak tolostuta, ximeldurik, galdetu dut:

— Zer gertatu zaio Mahatsondo-ari?

— Ez galdetu mesedez, esan didate izebak eta amak, zortzi egun daramagu bueltaka, haserre, triste, erdi negarrez. Ez du erremediorik. Baina...

Erantzunak mindu egin du nire barnea.

— Aizkora batez ebaki dute bere enborra...!

— Baina, zergatik?
— Ingurua garbiago edukitzeagatik...!

Akaso horma huts eta hotz bat garbiagoa izan daiteke? parra eder, sendo eta berde bat baino? Noiztik berdea da zikina?

Ez dakit, agian batzuenztat..., ez nireztat ez eta nire familiarentzat ere. Ez zinen geurea, baina betidanik izan zara errespetatua, mirestua, maitatua. Lau belaunaldi ezagutu eta txikiak ere esan du triste. Parra gaixoa!

Esan didatenez 70 urte izango zenituen (erraz esaten da), eta zeure enbor zaurituetatik egunetan egon zara sapa dariola, zeure negarmalkoekin putzu handi bat egin arte. (Ekintza justifikatzeko, lehortuta zeundela esango duten arren).

Zuk zeuk egin beharko duzu negar. Guk gizakiok sentiberatasuna galdu dugu. Ez dugu bihotzik. Ez eta erremediorik ere.

ARANTZA LASA ITURBE

••••

Eskerrik asko "Corazon de Encina" koei

Udaleko kultura zerbitzutik hileroko orritxoak jaso buzoitik, eta hara non jakin dudan Extremadurako herrikideek *castuo* izeneko hizkuntzaren berri emateko hitzaldi bat antolatu dutela.

Zorionak ideiatatik eta eskerrik asko herrikideoi zuen kulturaren berri eskaintzeagatik.

Norberarena maite duena inorena maitatzeko moduan dago. Eta, era berean, norberarena aintzakotzat ez daukanak, nekez estima lezake inorenik.

Jakinaren gainean lurra eta hizkuntza direla, hemen eta edonon, berezko eskubideak edozein komunitatearentzat, bide onetik zoaztela intuizten dut.

Honela, bada, maita ezazue zuena eta elkarren arteko osagarritasuna bide zuzenetik joango da. Ziur!

Jakinminez izango nauze datorren asteazkenean Monterronen.

JULEN AREXOLA-LEIBA

Astelehen goizera arte, irakurle!

Igandeko hauteskudeetan Arrasaten ateratzen diren emaitzekin, ale berezi bat kaleratuko dugu astelehen goizean. Bertako informazioa, zuzen eta azkar, ARRASATE PRESSEN.

Kiosko, okindegia, gozotegi eta herriko hainbat tabernetan aurkituko duzu dohainik.

MENDI taberna

Mendi da zure etxea


Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

Zer iruditu zaizu hauteskunde kanpaina?



Guadalupe Zubia
Santa Agedan langile
(48 urte)

Paper gutxiago dago aurten kaleetan. Interesik ez dauka kanpainak eta aspergarria da. Politikoez betikoa botatzen dute, berdin berdina.



Lorentzo Altube
Ale-n langile (60 urte)

Betiko bezala, aurretik asko agindu eta gero gutxi emon. Gizon formal batzuk ikusten die, aginketan dauena itten dauenak, bañe gutxienak die, hatzamarraz apuntena die.




Ana Rodriguez
Oposizioak prestatzen
(22 urte)

Ondo iruditzen zait kanpaina egotea, baina bakoitzak badauka bere iritzia, eta politikoez asko esanagatik ere, ez dizute hori aldatu araziko.



Patxi Arratibel
Cegasan langile
(32 urte)

Ez dakit, ez dut botatuko. Aurten nahiko mantso dihoa, beste urte batzuekin konparatuta. Hala ere, telebistan eta irratian, nahiko penagarria.




Zigor Lasagabaster
Politeknikoan ikasle
(18 urte)

Danak iguala esaten daue, eta danak gauza bat bihar daue, dirua eta boteria eukitzia. Ez dot ikusten gauza barririk, gehixenak gezurretan dabilzela.



Arantxa Atienza
Asesore medikoa
(28 urte)

Paso, paso. Denek agintzen dituzte gauza asko eta azkenean, ez dute ezer ere egiten.



Iñaki Fernandez
Aparejadorea
(33 urte)

Ez dit gehiegi ardura. Argi daukat nori eman behar diodan botoa, eta beraz ez diot arretarik eskaintzen esaten dutenari.



Ana Perez
Etxekoandrea
(29 urte)

Ez daukat ideiarik ere, paso egiten dut, ez dit interesatzen inongo alderdi politikok. Ezertarako ere ez dit interesatzen.

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:

**Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak**

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

LAURA
GAZTE MODA

Erdiko kale, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 57 20

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritexeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	71 44 52
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 4	
Egunez: Irizar. Erguin.	
Gauetz: Estella. Matxiategi.	
Larunbata 5	
Egunez: Amezua. Santa Marina.	
Gauetz: Mozos. Pedro Deunaren.	
Igandea 6	
Egunez: Ruiz. Maala.	
Gauetz: Mozos. Pedro Deunaren.	
Astelehena 7	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Camacho. Oxirondo.	
Astearte 8	
Egunez: Azkoaga. Ferrerías.	
Gauetz: Puy. Barrenkale.	
Asteazkena 9	
Egunez: Español. Iturriotz.	
Gauetz: Guallar. San Antonio.	
Osteguna 10	
Egunez: Corcuera. Santa Marina.	
Gauetz: Estella. Matxiategi.	

4 OSTIRALA

ZINEA

"Viven" (7,10)

ANTZERKI EMANALDIA

Miguel Garcia de Cortazarren "El circo pobre" obraren antzezpena. Gaueko 10etan. Eloorrioko Kafe Ateneon.

ROCK KONTZERTUA

"Goma 2" eta "Garrote Vil" taldeen rock kontzertua. Gaueko 9etan. Arrasateko Gazte-txean.

AL ANDALUSEKO ASTEA

Sevillana jaia. Gaueko 9.30etan. Al Andaluseko zentruan.

ZAHARREN ASTEA

Aste osoan zaharren astea burutuko da Iturbide Egoitzan. Ekintza ugari egongo dira bertan: astelehenean ikastolako abesbatzaren emanaldia eta txistulariak, asteartean Txatxipel taldearen emanaldia, asteazkenean herriko kristau gazteen taldearen bisita, ostegunean Parrokoaren hitzaldia, ostiralean Arrasate Musikalen emanaldia. Larunbatean, Arnedillora bidaia egingo dute. Eta igandean asteari amaiera emateko, meza egingo da Egoitzako kaperan, herriko kristau taldearekin.

DEBA BEHEKO GESTIO ESKOLA

Datorren ekainaren 7an Deba Beheko gestio eskolari buruzko hitzaldi bat egongo da Monterronen, arratsaldeko 7etan. Elgoibarko Erreminta makinaren Institutoak dauzkan ikasgeletan kokatuko da eskola eta ekainaren 28tik uztailearen 3a bitartean aukeratuko dira datorren ikasturteko ikasleak. Onartutako ikasleek uztailearen 5etik 15era bitartean egin beharko dute matrikula. Kurtsoan ikasgai orokorrak, teknikoak, jardunbide mailakoak eta esperimintazio praktikoa eta profesionalizazioa izango dira.

5 LARUNBATA

ZINEA

"Viven" (5,7.30,10)

TENIS TXAPELKETA

Tenis txapelketa irekiaren lehen eguna. Arrasateko Kiroldegian. Beharrezkoa aurrez izena emanda eukitzea.

AL ANDALUSEKO ASTEA

Haurjolasak, goizeko 10.30etan, Erguingo eskolan; emakume ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partidua, 10.30etan; Guiñol antzerkia, arratsaldeko 4etan; Gazte jaia, 6.30etan; Rocioko jaia gaueko 9etan.

PARAPENTE TXAPELKETA

Parapente txapelketa: 11etan izenematea, 11.30etan Aire-ratze tokira igoera, eguerdiko 1etan Briefing, 5etan froga itxiera. Oñatiko Santa Luziako zelaietan.

OTOITZ TOPAKETA

Otoitz Topaketa. Gaueko 8etan. Kontzesioko Konbentuan. Emalea: aita Arrizabalaga..

6 IGANDEA

ZINEA

"Viven" (5,7.30,10)

HAUTESKUNDEEAK ATBn

Hauteskundeetako programa bereziak: 3etan eta gaueko 10etan. Emaitzak, komentarioak eta alderdietako ordezkariak.

MENDI IRTEERA


Mugarrara mendi irteera. Irteera: goizeko 8.30etan Partenoitik. Itzulera: bazkaltzeko. Murruxiko taldeak antolatuta.

AL ANDALUSEKO ASTEA

"Bazkideen eguna": Sevillanak eguerdiko 12etan; "Sueños de Andalucía" taldearen emanaldia 7etan; "Alegria de la Sierra" taldearen emanaldia 8etan. Al Andaluseko zentruan.

PARAPENTE TXAPELKETA

Larunbateko egitarau bera. Arratsaldeko 6etan sari banaketa. Oñatiko Santa Luziako zelaietan.



HAUTESKUNDEAK ATBn ETA ARRASATE PRESSEn

Igandea, ekainak 6, Legebiltzarreko hauteskunde eguna da. Hori dela eta, ATBn programazio berezia eskainiko zaizue. Egunak emango dituen comentario, protagonista eta beste albisteak eguerdiko 3etan izango den informatiboan eta gaueko 10etan egingo den programa berezian ezagutu ahal izango dituzue. Horretaz gain, Arrasate Press aldizkariaren zenbaki berezia astelehenean kaleratuko da, emaitza eta beste datu guztiekin.

7 ASTELEHENA**ZINEA**

"Viven" (7,9.30)

ZAHARREN ASTEA

Zaharren astea: Zaharren astea: Ikastolako abesbatzaren emanaldia, txistulariak... Iturbide Egoitzan.

HITZALDI INFORMATIBOA

"Deba Beheko Gestio eskola"ri buruzko hitzaldi informatiboa. Emalea: Jose Mari Ulaizia. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

PINTURA ERAKUSKETA

"Mijana" Extremadurako pintorearen erakusketaren hasiera. Ekainaren 13a bitartean. Monterronen.

CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA

Marrazki eta pintura lehiaketa. Arratsaldeko 5etatik 8etara. Corazon de Encinako Zentruan.

ERDU-AEKko IKASTARO TRINKOAK

Ekainaren 28an hasiko da ERDU-AEKk antolatutako uztailleko ikastaro trinkoa. Izena emateko epea ekainaren 1etik 25a bitartean egongo da zabalik. BBB, UBI edota REMeko ikasleentzat ere ikastaro berezia egongo da. Informazio gehiago Garibai etorbideko 14. zenbakian izango duzue edota telefono honetara deituz: 77 03 69.

8 ASTEARTEA**ZINEA**

"Viven"(7,9.30)

ZAHARREN ASTEA

Zaharren astea: Txatxipel taldearen emanaldia. Iturbide Egoitzan.

ROCK KONTZERTUA

"Chilli Confeti" taldearekin rock kontzertua. Gaueko 9.30etan. Elorrioko Kafe Atean.

CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA

Txokolate jana, arratsaldeko 7etan; futbol partidua, arratsaldeko 8etan, Santa Teresako futbol zelaian.

MERENGUE IKASTAROA

Eskoriatzako Kultur Etxeak merengue ikastaroa antolatu du. Datorren uztailaren 6tik 27ra bitartean izango da ikastaroa eta izena ekainaren 23a baino lehen eman beharko da Kultur Etxean. Prezioa 1.000 PTAKoa da.

TENIS TXAPELKETA

Ekainaren 12an, tenis txapelketa hasiko da Muzkoloko Kiroldegian. Bi kategoria desberdinduko dira: 14 urtetik 18ra eta 18 urtetik aurrera. Txapelketa honetan parte hartzeko beharrezkoa da izena aurrez emanda eukitzea. Parte hartzeko, prezioa 500 PTA lehen kategoriakoentzat eta 1.000 bigarrenekoentzat. Izena emateko epea ekainaren 9an bukatuko da.

9 ASTEAZKENA**ZAHARREN ASTEA**

Zaharren astea: Herriko kristau gazteentzako emanaldia. Iturbide Egoitzan.

ROCK KONTZERTUA

"Chilli Confeti" taldearekin rock kontzertua. Arratsaldeko 7etan. Arrasateko Gazte-txean.

HITZALDIA

"Azalaren zainketa udarako" izeneko hitzaldia. Arratsaldeko 4etan. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.

HITZALDIA


"Extremadurako Castuo hizkuntza"ri buruzko hitzaldia. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Corazon de Encinako antolatuta.

10 OSTEGUNA**ZAHARREN ASTEA**

Zaharren astea: Jose M. Astigarragaren hitzaldia goizez, Zabale Anaiak eta Hiru Dantzari bikoteraren emanaldia arratsaldean. Iturbide Egoitzan.

CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA

Extremadurako produktuen dastaketa, 6.30etan; futbol partidua, 8etan Santa Teresako kanpoan.

**KULTUR ASTEA: AL ANDALUS eta CORAZON DE ENCINA**

Aste berezia burutzen ari da Al Andalus elkarteak. Pasa den astelehenean hasi eta ekainaren 6an, igandean bukatuko da. Egunero hainbat ekintza burutu da zentruan eta asteburuan ere egongo dira beste hainbat: haur jolasak, ezkondu eta ezkon gabeen arteko futbol partiduak, antzerkia, "Al Andalus" abesbatzaren emanaldia... Bazkidearen egunean arratsalde partean "Sueños de Andalucía" eta "Alegria de la Sierra" taldeen emanaldia egongo da. Corazon de Encina elkarteak, berriz, datorren astean burutuko du kultur astea, ekainaren 7tik 13ra. Ekintza ugari egongo da: pintura eta marrazki lehiaketak, futbol partiduak, txokolate jana, antzerkia, play back jaialdia, haur jolasak, folk jaia, mus txapelketak...

“Hotzak egon denak, ondo baino hobeto daki, jakin beharko luke gehintzat, suari egurrik bota ezean, su horrekin ez dagoela berotzerik: bizirik edo itzalita, ez dago beste aukerarik. Baina, hizkuntza itzalia ez izateaz konformatzen den herria, nahi eta nahi ez, su hori bere bistan motelduz joango dela ikusteko lukuko ezezik, horren erruduna ere izango da”.

Jon Zuazabeitia 93-5-27

Egunkaria

“Baina ez dezagun geure burua engaina: (kooperatibetan) herriak nahi zuena hauxe baino ez da, hau da, hauexek dira ekonomi arloan ditugun lehenetsuen emaitza praktikoak. Lehen baze- goen eta orain ere badago, ia ia bat datorren herriaren ahots bat, eta politikari eta sindikatuek elikatzen jarraitzen dutena, eta soldatak gehitu eta gastu publikoa handitzearen aldeko borrokan dabilena. Begibistakoa da gobernu eta sindikatuak gertatutakoaren erantzule direna, baina hiritarren desioei jaramon egin dieten neurrian baino ez dira erantzule.”

Antton Perez de Calleja 93-6-2

EL MUNDO DE PAIS VASCO

“Goikoen eta behekoen artean dibortzioa dago, eta urtetibetetik hona hori nabarmenagoa dela uste dut. (...) Bizi dugun krisi egoerari, beste krisi mota bat gehitu behar diogu, garrantzi berbera edo handiagoa duena. Klima sozialaren galera bat dago, baina baita pasotismo bat edo bakoitzaren inplikazioan ahultze bat ere, eta hori estudiantzeak merezi du. (...) Krisiari aurre egiteko karrera honetan lotura gutxiarekin korrika egiten dugula iruditzen zait. Hau da, pausu ezberdinekin egiten dugu aurrera edo batzuk besteengandik oso bereiztuta. Zuzendariak eta zuzenduak. Ez dago lotura eta komunikaziorik kolektibo bien artean”.

Jose Ramon Elortza maiatzeko

TU lankide


Nola prestatu dituzue ikasleak selektibitateerako?

Orain izan ditugu azkeneko azterketak, eta dena atera dutenei beste pare bat astetan klasea emango diegu. Baten batzuei materia pixkat falta bazaie, bukatzeko materia hori ematen dute selektibitate programan sartzeko, eta besteak, lortu dutenak materia guztia ematea, erreparatu batzuk egingo dituzte, gai guztiak berriz ikusi, pixkat fresko eraman dezaten dena selektibitateerako.

Institutu honetatik 84 joango dira orain, UBI (COU) egiten dutenen %60 izango dira horiek gutxi gorabehera; eta doazen 84 horietatik heren bat izango dira euskaraz egingo dutenak. Nik uste dut aprobaturiko dutela, azken batean selektibitate UBI da, eta UBI ateratzen dutenek, gero %99k ateratzen dute selektibitate. Beraz, selektibitate lehenago eginda dago pixkat.

Orain dela 12 urte, nik egin nuenean UBI, hilabete eta gehiago egon nintzen greba batean selektibitatearen kontra. Orduan selektibitate berria zen, baina gero, bueno, egin genuen eta beste batzuek ere egin izan dituzte. Azken finean, uste dut selektibitate UBI bertan egiten dela. UBI egiten duena prestatuta dago selektibitateerako eta unibertsitateerako joateko.

Aurten egingo dena irakasle gehiago hartzea izango da. Lehen tribunaleko bakoitzak 300 baino gehiago zeuzkan zuzentzeko. Orain hori gutxitu egingo dute, hobeto egiteko. Datorren urtean esaten dute aldaketak egongo direla, baina aurten ez. Ez dakigu hemengo inor tribunalerako joango den, baina joaten bada ere, ez dituzte hemengoak zuzenduko, Donostiakoak edo zuzenduko dituzte.



Iñaki Odriozola
Institutuko Irakaslea



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

PSE-EEren ekitaldia


Joan den ostiralean, hauteskunde ekitaldia izan zuen Monterronen PSE-EE alderdiak. Hizlariak Mario Onaindia, senaturako hautagaia eta EE zenaren liderretako bat; Ana Miranda eurodiputatu, eta Angel Garcia Ronda, Gipuzkoako Kongresurako zerrendan bigarrena, izan ziren. Monterrongo hitzaldi aretoa bete egin zen hitzaldian. Kanpoan, gazte talde batek PSOEn kontrako pankarta bat zabaldu zuten.

EA-EUEkoen bisita

Gipuzkoan senatura aurkezten diren EA-EUEko zerrendagaiak izan ziren Arrasaten astelehenean: Imanol Murua Diputatu Nagusi izandakoa, Esther Larrañaga arrasatearra (EAKoak hauek), eta Kepa Aulestia EUEkoa. Hautagiek Alejandro Altuna enpresa, Eskola Politeknikoa eta Ikerlan bisitatu zituzten, bazkaria izan zuten Alkartetxean eta, bisita amaitzeko, arratsaldez hitzaldia eskaini zuten udaletxean.

IU koalizioaren mitina

Hauteskunde kanpainan Arrasaten egindako azken ekitaldia Izquierda Unida-Ezker Batua taldearen mitina izan zen astearte arratsaldean udaletxean. Juan Vallejo Gipuzkoatik



Uherkapeko horma egiteko agindua

Uherkapeko horma egiteko agindu du dekretuz alkateak. Hala ere, Uherkape elkarteko bizilagunak obrak epaitegiek geldiarazi egin ditzaketela azaldu zuten, eta ez ziren oso baikor azaldu joan den asteko plenoan, gai hau tratatu zenean. Uherkapeko bizilagunek, eta Altamirarako errepidea mozteak kalte-tutakoek, mozioak aurkeztu zituzten horma lehenbailehen egin dadin eskatuz. Mozio baten puntu batean, Uherkapekoek Azatza auzoko bizilagunen jarrera publikoki kritikatu zedin eskatzen zuten, insolidarioa omen delako. Udaleko talde nagusiek, alkatearen ahotik, bizilagun batzuen jarrera kritikatea ez dela udalaren zeregina esan zuten, eta puntu horretan abstenitu egin ziren. Hala ere, PSOeko zinegotzien aldeko botoekin onartu zen mozioa, Azatzakoen jarrera insolidario deklaraturata.

senaturako hautagaia eta Juan Mari Tomasena izan ziren hizlariak.

Bi atxilotu droga dela eta

Arrasateko bi gazte atxilotu zituen Ertzaintzak joan den astean Bergaran, 200 gramo *haxix*-ekin. Antonio G.C. (23 urte) eta Diego C.M. (26) droga (*haxixa*) maila txikian saltzen ibiltzen ziren Deba Garaian Ertzaintzaren arabera. Atxilotuei dirua eta

objeturen batzuk ere atzeman zizkieten, ustez lapurretaren batean lortutakoak. Joan den asteko asteazkenean gertatu zen atxiloketa, trafikariek Bergarako farmazia batzuetan ustez lapurreta egin eta gero.

Auzoetako errehabilitazio plana

Arrasateko San Andres auzoak errehabilitazio plana daukan bezala, Aretxabale-tako San Migel Belarreta

auzoak ere antzerako plana lortu du Eusko Jaurlaritzatik. Hain zuzen ere, Hirigintza sailak 30 milioi PTako dirutza inbertituko du auzo honetako konponketetan.

Autodeterminazioaren aldeko manifestaldia

Autodeterminazio eta amnistiaren aldeko manifestaldia izan zen astearte arratsaldez Arrasaten. Amnistiaren Aldeko Batzordeak egin zuen manifestaldirako deia, eta kartzeletan euskal presoak egiten ari diren gose grebarekin bat zetorren lema. Arrazoi beragatik, aste honetan egunero egin izan dira enkarteladak Portaloian.

JAIOTZAK
<ul style="list-style-type: none"> Abel Barrionuevo Cascojuelo. Maiatzaren 13an. Maitte Gesala Madinabeitia, 15ean. Aitor Azkarate Iglesias, 18an. Aitzol Mondragon Buruaga, 26an. Pablo Cruz Arejolaleiba, 27an.
EZKONTZAK
<ul style="list-style-type: none"> Rafael Gonzalez Martin & M^o de la Soledad Otero Aranda. Maiatzaren 16an. Zibilez. Maria Jose Balanzategi & Ernesto Fernandez, 29an. Elizaz.
HILDAKOAK
<ul style="list-style-type: none"> Manuel Ziauriz Lafuente. Maiatzaren 18an. 78 urte. Esteban Aranez Agirre, 20an. 80 urte. Jose Mari Aranzabal Gantxegi, 21ean. 95 urte. Maximo Arenaza Zugasti, 22an. 65 urte. Fidela Ugarte Urrutia, 23an. 80 urte. Trino Vila Cid. 26an. 59 urte. Emilia Marchan Pavo, 27an. 75 urte. Valentin Murua Telleria, 27an. 76 urte. Inazio Beitia Aiausti, 27an. 59 urte. Antonio Alberdi Garamendi, 29an. 46 urte.

ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

LORATEGI

Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467



KLARA ELKOROBARRUTIA *

Ondo pasatzeko arrantzarik ez

Larunbata zen. Ama Naturak egun eguzkitsu zoragarria eskainiz, Euskal Herriko edozein txokotako artelanak kontenplaztera gonbidatzen gintuen. Nik neuk Urkulu aukeratu nuen osteratxo bat egiteko. Nire zentzumenek jaso ahal dituzten bizitza-mota guztiakin zuen zerbaitz ohartu nintzen: arrantzan aritzen adin guztietako mutiko-talde bat zen. Batzuk, irakasle jarduten zuten gurasoekin zeuden. Halako batean, bizikletak eta bizkarrean arrantzarako kaina-berak zituzten mutil-talde bat ikusi nuen, soinean "Salba dezagun Lurra" dioten kamisetak zeramatzatelarik. Burmuinak lanean hasi zitzaizkidan, eta zergatik ematen ote den hainbeste kontraesan bizitzan galdetu nion neure buruari; iharduera hau, arrantza deportiboa alegia, gizakia txikitzeko eta degradatu edo kaxkartzeko era bat dela iruditzen zait. Beste edozein animaliak jateko baino ez du akabaten eta Homo-Animaliak bere atseginerako ere bai.

Zoritxarrez, ehizaren aurkako mugimenduen ahaleginak lurreko animaliei bakarrik zuzendurik egon dira, uretako animalia edo arrainei buruz, oster,

ezer gutxi egin da. Ehizari buruzko arrazonamendu berak aplika dakizkioke arrantzari. Basoko bizitza eta animalien eskubideen aurka doa. Gai honetan, beste askotan legez, antropozentrismoz jokatzeko dugu: beren ezaugarriengatik gogokoago ditugun animaliei (hegaztiak, untxiak, oreinkumeak...) eragiten diegun oinaze edo sufrimenduak ukitu egiten gaitu, baina afektiboki gugandik urrunago dauden beste batzuetaz ahaztu egiten gara.

Arrantza deportiboa-adjetibo ezegokia- arrantzaren degenerazioa da, animalia eta pertsonen bizitza gordetzearen alde egitetik iharduera nazkagarri izatera heldu baita. Arrantza deportiboa deritzan hori justifikaezina eta kaltegarria da, eta gainera ez da beharrezkoa. Hortaz, bizi izateko egiten den iharduera eta laketa-iharduera bereiztu egin behar dira.

Ni neu laketa-iharduera honen aurka nago argi eta garbi, eta arrantza-mota hau da, hain zuzen ere, salatu nahi dudana. Sentsibilitaterik eza agertzen duen hutsegitez hartzen dut, zerbait falta zaio pasaia baten edertasun naturala, hegazti eta

tximeleten hegaldia eta gure zentzumenek jaso ahal duten gutzia kontenplazteaz nahikoa ez duenari. Azken finean, Urkulu edo beste edozein ibaitan hau edota heldu bat arrantzan dabilenean bizitzaren jaun eta jabe sentitzen da, biolentziaz jokatzeko; hitz gutxitan esateko, "jaungoikotxoak"... sentitzeko eta agresibitate asko uzteko gogoia baino ez da. Harritzekoa da iharduera honetan jarduten duen emakume kopuru-urria; beharbada, marxismoaren ondorio da, eta seguruenik emakumearen sentsibilitate handiagoari ere zor zaio, ez baitu gozatzeko hiltzeaz.

Gure jokaeraz beste izaki batzuegan halako eragina badute, eta gauzen zentzu etikoa eta kontzientzia dugun bakarrak izateaz harrotzen bagara, gure portuaren inplikazio moralak baloratu eta hausnartu beharko genituzke. Ondo pasatzeko arrantzaren kasuan, nabaria da animaliekiko etikarik ez dagoela. Ez ditugu bizia duten izaki sentiberatzen hartzen, aitzitik, kezkarik gabe harrapa daitzeko objektu hutsak direla iruditzen zaigu.

Planetaren narriapen ekologikoaren ostean, bizitza-modu bakoitzarekiko sentimendu solidarioak eza dago. Espeziez arduratu beharra dago eta baita indibiduo bakoitzaz ere.

Ekologia, eguneroko bizitzako fazeta asko biltzen dituen filosofia globalizatzailea da, gizakiok egitura biologikoaren zati bat garelako ustetik sortua.

Ondo pasatzeko arrantzan egin eta ehizatzen duen jenderik gehiena erdi-mailako hiritarra da, naturatik urrun dagoena eta berarekin sentimendu-loturarik ez duena.

Ikastexetean gure hurrengai honi buruz ematen zaien heziketa zalantzan jartzen dut eta, era berean, gogor saltatu nahi dut kirol-dendetan heriotza dakarren hainbeste tresna edo artilugio saltzeko aukera.

* **EKOLOGISTA**

USTEAK USTE

ZAPATUAN, EGIN ENTZUNGOR

Sekula baino kanpainak "garbiagoa" iruditu zait hau, aitor dezadan; baina era berean, sekula baino keja gehiago somatu dut jendearen aldetik. Gogaituta eta etsita dagoela aitortu dit batek baino gehiagok. Eta ez dakit hori zela jaten den telebista pribatuek aldarrikatzen dituzten audientzia izugarriekin nahasi.

Telebista. Horixe da kanpainako azken inbentoa. Kaleko kartelek eta mitinek ez dute jenderik erakartzen, eta gu harrapatzeko, etxeraino sartzen dira politikoak, sloganak, kantu elektoralak. Eta horren ondoren, hausnarketarako eguna omen zapatua.

Denoi etorriko zaigu ondo emaitzen bonbardeoaren aurretik atsedan egun bat. Baina kaleko kartelak ez dituzte kenduko, politikoaren begirada, utzitako inpresioa eta kantu pegadizoak iltzatuta izango ditugu garunetan. Lastimaz, kanpainan zehar hausnartu ez duenak, apenas hausnartuko du egun batez, botoa ematera joan edo ez joan edo eguraldi ona egiten badu zer egin zalantzatan ez badago behintzat.


ARANTZAZU LOIDI

- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aukiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnok: 79 58 11 / 79 59 76

TXOKO TABERNA
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnok: 79 20 10 ARRASATE



Garbiketaren bidez, mantenu hobea lortzen da makinetan.

F. Ederlan, kalitatea eta produktibitatea konpromezu

Fagor Ederlanen, T.P.M. ren kick-off, lan-tzamendu edo bultzakada ekitaldia burutu ziren astelehenean. T.P.M. siglek, Manteni-mendu Produktibo Osoa esan nahi dute in-gelesez, eta produktibitatea bilatzeko erra-minta bat da. Japoniako JIPM Institutuaren gidaritzapean, esperientzia pilotoak burutu dira orain artean, eta aste honetako ekitaldia-ren bitartez, produktibitate eta kalitatea lortzeko konpromezu hartzea egin du Ederlan-ek, sistema hori lantegi guztira hedatuz, zero akats, zero inproduktibitate, zero stock, zero istripu eta balio erantsirik gabeko egitu-retan ere zero izateko bidean.

Fagor Ederlanek bezala automoziorako osagarriak egiten dituen lantegi batentzat, erronka handia da krisi egoeran horrelako metodoetan sartzea, baina mehatxuak auke-ra bihurtzen jakitearen beharra azpimarratu zuten Ederlaneko ordezkariak.

Aldian behingo garbiketa, konponketa eta estandarren bidez, mantenimendu hobea

lortu nahi da, arazoak ebitatu eta produktibi-tatea gehituz. Zuzendaritza tailerreko erre-alitatera begira jartzea eta tailerra merkaturko erre-alitatera hurbiltzea jartzen dituzte hel-buru Japoniako enpresa kontsultorekoek. Sistema izatez japoniarra bada ere, hango esperientziaz baliaturik, bertara egokitutako eredu a egin nahi da.

95erako jarri dituzten helburuen artean, produktibitatea %50 gehitzea, istripuak er-dirajeistea, eskulan zuzenaren polibalentzia %40tik %80ra pasatzea eta energia kontsu-moa %60 gutxitzea daude besteak beste.


Ekitaldian zehar Suzuki jaunak, kontsul-toriako ordezkariak aditzera eman zuenez, Ederlan da Estatu guztian tresna honekin lanean ari den enpresa bakarra, eta 95erako jarri dituen helburuak orain arte bezala bete-tzen badira, posible da P.M. kalitate eta produktibitatearen nazioarteko sari ospetsua lortzea. Sistemaren hedapena berehala etor daiteke talde osoa.

Industria sustatzeko

Udal Gobernu Batzor-deak Arrasateko udalerria-ren sustatze industrial-a aztertzeo proiektu bat egitea onartu du. LKS enpresak egingo du azterke-ta, eta lehenik eta behin Arrasaten ekonomi krisiare-n eta lanpostu galeraren arrazoiak aztertzen saiatuko dira, gero ekonomia bultza-tzeko zein aukera industrial eta zein arlotan diren interesgarrienak ikusteko. Ikerketa honetan 5,8 milioi pezeta inbertituko dira. Bestetik, INEMekin elkarla-nean 9 langabetu kontrata-tuko ditu Udalak urte erdirako, Gobernu Batzor-dean onartu zenez.

Udal kultura sailaren urteroko dirulaguntzak

Taldea	PTA.
Zeramika Eskola	250.000
ASA (argazkilaritza)	140.000
Tunantes del Norte	300.000
Espeleologia taldea	83.000
Erraldoi eta Kilikiak	460.000
Margo taldea	150.000
Trikitixa eskola	600.000
Goikobalu abesbatza .	1.800.000
Lore Gazteak	225.000
Txikitxu-Arrostaitz	270.000
Txalaparta taldea	100.000
Arrasateko Gaiteroak	75.000
Al Andalus	265.000
Corazón de Encina	265.000
Kom. Internazionalistak	180.000
Zientzia Elkarteak	190.000
Yoga Elkarteak	30.000
Irratizaleak	95.000
Tailaginen elkarteak	210.000



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia


Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



Papeletak elebidunak dira, eta asteazkenean etorri ziren Arrasatera.

Herriko 20.553 lagunek izango du boto-eskubidea

Ekainaren 6an, hauteskunde eguna berriro. Aste honetan zehar, udaletxeko brigada udal-hauteskundeetatik almazenean egon diren hautestontzi edo urnak kolegioetara eramaten aritu dira. Errolda edo zentsoa asteazkenean iritsi zen: 20.553 mondrauetarrek dauka igandean bozkatzeko eskubidea.

31 mahai elektoral egongo dira Arrasaten igandean, ohizko kolegioetan: Ferixalekuko ikastola (5.611 hautesle), San Antolin ikastola (2.471), Santamainako auzo alkate-tza (2.644), San Andresko eskola (3.791), Erguingo eskola (3.476) eta Uribarriko Jo-kin Zaitegi ikastola (2.508 hautesle, horieta-

rik 1.261 Garagartza, Gesalibar, Udala eta Uribarriko baserri auzoetakoak).

Mahai bakoitzean mahaiburua, bi mahaikide (bokalak) eta alderdietako begira-leak izango dira. Mahaiburu eta kideak, zozketaz aukeratu zituzten udaletxean joan den astean, eta lan handia izango duten arren, konpentsazioa ere bai: bakoitzak 8.300 PTA jasoko ditu.

ARRASATE PRESSEK ere lan egingo du hauteskunde egunean. Era horretan, kioskoetan eta herriko hainbat lekutan astelehenean auzoz-auzoko emaitza osotu eta taulekin orri berezia banatuko dugu.

IFAMen ordainketa suspentsioa

Feliciano Aranzabal SA edo IFAM enpresak ordainketa suspentsio espedienteak aurkeztu du Bergarako epaitegian, jasaten ari den krisi ekonomikoagatik. Espedientearen bidez, zordunei zorrek ez ordaintzeko baimena eskatzen du enpresako zuzendaritzak, baina horrek ez du halaberrez langileak soldata barik geratzen direnik inplikatzen.

Txakurren bakunazioa

Txakurrak txertatu edo bakunatzeko kanpaina jarriko du martxan Udalak ekainean. Albaiteroa ilunkeretan auzoz auzo joango da: 9n Garagartzako plazan eta Gesalibarren, 10ean Bedoñako Errastikua Tabernan, 11n Meatzerrekako Auzo elkartean, 14ean Zaldibarko Etxe-Zuri baserrian, 15ean Musakolako Zabaleta baserrian, 16an San Andresen Lana-ko atean, 17an Uribarriko elizaren aurrean eta 18an Udalako igerilekuan.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



JOSU

**TXOKOLATEGIA
KAFATEGIA**

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

UGARTE

**Industri
hornidurak**


Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65



Birziklatzeko gaiak biltzeko zerbitzua da aurkeztu den proiektuetako bat.

Hamaika ideia aurkeztu dira Arrisku-soldata programara

Diputazioaren laguntzaz, Arrasateko udalak konbonkatu duen Enplegu sustapen programarako deialdiak nahiko erantzun ona izan du aurten. Arrisku-soldata programa honetara 11 proiektu aurkeztu dira, nahiko bariatu eta orijinalak. Honako hauek dira:

- Karrozeria tailerra.
- Eraikuntza enpresentzako koordinazio zerbitzua.
- Diseinu industrial proiektu bat.
- Ingurugiro zerbitzuak eskaintzeko enpresa.
- Orein okelaren produkzioa.
- Eskualdeko txakurtegia.
- Material birziklagarria batzeko zerbitzua.

- Itzultzaile zerbitzua.
- Turismo enpresa bat.
- Orientazio pedagogikorako gabinetea.
- Informatika enpresa bat.

Hauetarik zenbat onartuko diren ez dago argi oraindik; lauzpabost izan daitezke eta seguruenik uztailen egingo da publiko erabakia, consulting baten bitartez aukeraketa egin eta gero. Proiektu berriak urrian hasiko dira lanean. Iaz lau proiektu bultzatu zituen Udalak, emaitza onarekin. Izan ere, aurkeztutako haietarik (bideo produktora bat, hortz laboretagia, delineaio estudioa eta bitxiteria tailerra), bat enpresa bihurtu da jada, eta besteak horretarako bidean daude.

Politeknikoaren I + D programa

Eskola Politeknikoa, Fagor Sistemas enpresarekin bat, *composite* materialen gaineko ikerketa bat garatuko du, Europako Komunitatearen Brite EuRam II programaren barruan. Eskolari Europatik finantzatzen dioten lehenbiziko I + D (ikerkuntza eta garapena) proiektua da hau. Hau baino lehenago, Lanbide Heziketako zenbait proiektu bultzatu izan ditu Bruselak Politeknikoan.

Hozgailu ekologikoak

Fagor Elektragailuetako zuzendariak, Juan Manuel Ugartek, 'TU Lankide' aldizkarian esan duenez, datorren urtean CFC gasik gabeko hozgailuak egingo ditu Fagorrek. CFC gasek ozono geruza kaltetzen dute, eta *spray* eta hozgailuetan erabiltzen dira. CFC guztiak 2000. urtea baino lehenago ezabatzeko erabakia hartu du nazioarteak, baina Fagor aurreratu egin da. Gainera 1996rako CFCen ordezkoko HCFC gasak ere ezabatuko dituztela dio Ugartek.



- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKITA DAGO !

Hurbil zaitez gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epa zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

Informazioa

Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57



Mertzedarietako bigarren mailako 38 ikaslek, astebete pasatu dute Loiolako barnetegi batean. Euskeraren erabilpena bultzatu, naturarekin kontaktua indartu eta taldean bizitzen

ikasle, horiek izan dira helburuak. "Oso ondo pasatu dut eta berriz ere gustora joango nitzateke" esan zigun batek autobusetik jeitsi orduko.



Erguingo eskolako 15 ikasle eta irakasle bat Tenerife aldean pasatu dute astebete. Eskola ibiltariak programaren barruan lortu dute bidai



Pasa den larunbatean, **Karlos Argiñanok** aurkezten duen TVEko "Los sabados cocino yo" programakogonbidatua **Anne Igartiburu** izan zen. ATBko "Bakarka" programaren aurkezleak prestatu zuen azaloreak itxura ezin hobea zuen.



Pasa den larunbatean ospatu zen aurtengo jubilatuen eguna. Aurten 1.100 jubilatut hartu dute parte, egunean izandako ekintza guztietan: bazkarian, dantzaldian eta baita jubilatut nagusiei eginiko omenaldi berezietan ere.



Jone Aznarrek, 30 urte, Inglaterran ingelesezko ikastaroa egiteko aukera irabazi du, Ahizke-CIMen eginiko zozketa batean. Lau aste pasatuko ditu Ingalaterran eta ikasten ari den hizkuntza, ingelesa, hurbil hurbiletik ezagutuko du. Askok ikasi!

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

URRATS
AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

IZEN PROPIOAK

● Larunbatean ospatutako Jubilatuen Egunean nagusienak omendu ziren:

Candido Moraleja, 93 urte eta **Isidora Moreno**, 100 urte. Horretaz gain, **Santos Ceciaga**, 72 urteko arrasatearra ere omendua izan zen SUDCen eta jubilatuen eguneko antolaketan eginiko lanagatik. Azkenik **Albina Madinabeitia** violin joleak ere aipamen berezia izan zuen.


● Ekainak 6ko hauteskunderetan honako hauek izango dira mahai desberdinetako lehendakariak: **Jose Maria Bergaretxe**, **Begoña Saenz de Azkunaga**, **Mari Karmen Gorostiza**, **Jose Luis Loiti**, **Javier Sagasta**, **Iñaki Larrañaga**, **Eusebio Iñarra**, **Juan Mari Osinaga**, **Jose Madinabeitia**, **Juan Joxe Iglesias**, **Rosa Larrañaga**, **Juan Barquero**, **Mari Carmen Martin**, **Jose Arazabal**, **Ursula Meyer-Donher**, **Itziar Sologaitoa**, **Javier Bergaretxe**, **Gotzone Magunazelaia**, **Jose Migel Agirre**, **Aurora Peña**, **Angel Herrero**, **Jesus Mari Mentxaka**, **Maite Zeiaga**, **Maria Jesus Martin**, **Jose Luis Belategi**, **Ignazio Olaizola**, **Arantza Azpiazu**, **Lucia Murillo**, **Concepcion Alvarez**, **Concepcion Montes** eta **Julian Balanzategi**.



Pasa den urrian Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan hasi zen "Emakumea eta enplegu bilketa" izeneko kurtsoa pasa den astean

bukatu zen. Argazkian ikusten dituzuen 12 ikasleek bukatu dute kurtsoa. Ea lana bilatzeko zorte ona izaten duzuen!

Anselmo Perezek, 45 urteko arrasatearrak, txanpinoi eder horiek aurkitu zituen pasa den asteburuan Leongo Carvajal de Valderaduey herrian. Handienak 1.20 metroko diametroa du eta esan digunez, jateko oso onak dira.



Altzariak
Diseinua

M
ARENAZA

Bizkaia, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07



ETXEPARE - BILINTX
LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50



EA  EUE:

Zuzen eta garbi jokatzek Euskadiren alde bildu gaitu.

Gipuzkoan erakutsi dugun zintzotasuna Madrilen agertu nahi dugu.

Euskadiren aldeko aukera berri bakarra.

Soldadutzari zein bortizkeriari intsumisia.

**EMAN
BOTOA**

EA  EUE

B A T E G I N I K



Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Trikiti txapeldun!

Larunbat arratsaldea. Zaldibarreko frontoia jendez gainezka. Finalaren ordua da, Trikiti eta Zuloaken ordua.

Pronostikoak airean, eta aurrez ikusita, indarrak pare-parean. Lehenengo zatian zehar emozioa izan zen protagonista nagusia. Aukera ugari ate batean nahiz

bestean, baina gol bakarra ikusi genuen: Emilioren zartako bati esker Trikitik lortutakoa. Bigarren zatian, Zuloakek gura bai, baina ezin. Kontraerasoan Trikiti jaun eta jabe. Beste hiru gol egin zituzten.

4 eta 0. Zaldibarrek txapeldun berria dauka: zorionak, Trikiti!

NUEVO
taberna

Bañez Dokforea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE




DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tifnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !



Edozein leku da aproposa partidua arretaz jarraitzeko.

MONDRAUETARREN TOPALEKU

Zaldibarreko futbito txapelketak herriko mila gazte inguru mugitzen ditu, kirola egiteko aukera ematen die. Baina hori baino gehiago ere bada Zaldibar. Asteburu guztietan ehundaka ikusleren topaleku bihurtzen da. Adin guztietako arrasatearrek hurbiltzen dira, goiza edo arratsaldea pasatzera. Aurtengo txapelketa bukatu denez, ziur ikusle hauek hurrengoa hasteko irrikaz daudela.



Batzuk partiduari begira, beste batzuk argazkiaren zain.



Finaleko egunean hesiak eta guzti jarri ziren, primeran letxe.



ATBkoak lanean. Programa ederra egin zuten gero astelehenean.

Jovi

PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoa. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

M

MIKEL ELORZA
ETXEBERRIA

ASEGURU-ARTEKARIA

HELBIDE BERRIA:
Erdiko kale, 4 etxabea
Tfnoa: 77 13 09



Patxi Zuloak Ugarte, kopa jaso eta auskalo nori begira...



Ignazio Leniz Vinagre, kanpeonatuko jokalaria onenatarikoa.



Los Motz, tori kopa eta urdaiazpikoa, txapelketako talde aipagarria.



Raul Trikiti Agirre, Finaleko jokalaria onena.

SARI AUKERATZE ZAILA

Ez du lan erraza izan behar mila jokalariren artean onenak aukeratzeak, edota 72 talderen artean bat azpimarratzeak. Kontuak kontu, larunbatean antolatzaileek makinatxo bat sari eman zuten urtero legez: lau talde onenak, sei jokalaria trebee-nak, finaleko jokalaria onena eta talde azpimarraga-rriena. Horrez gain, Eugenio Murillo orain gutxi istripuz hildakoa ere gogoratu zuten.



ITURRIOTZ
taberna
Girorik
jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04

LIZARRA taberna

Leintzibar kalea, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35



Bodisca s.l.

Zeramikako pabimentu eta
gaineztaldurak

Otatora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



Jose Mari atezaina eta defentsak ederto ibili ziren finalean




Zelaian etsai, partidu ostean lagun, eta Udalpeko afarian...

ZORIONAK, TRIKITI

Talde serioa eta ondo plantatua. Txapelketa borobila jokatu dute, une bakoitzean gehien komeni zena eginez, eta puntu puntuan heldu ziren finalera. Larunbatean, jaun eta jabe izan genituen. Jose Mari atezainak ederto neutralizatu zituen Zuloakekoen jaurtiketak. Horri esker, Trikitikoak behin eta berriro irten ziren kontraerasoan, baloia azpikaldetik azkar mugituz aukera ugari sortu zituzten, eta horietako lau ondo aprobetatu. 4 eta 0. Erraz eta ondo merezita. Zorionak, Trikiti.



Aurtengo txapelidunak, Trikiti, presidentea eta guzti, sariz inguratuta eta irripartsu.



EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE




Zerkaosteta, 5
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE

URREA BITXITEGIA

Bitxigintzako azken nobedadeak zure esku oso prezio interesgarrian

Maalako Errabala, 8 ARRASATE Tfnoa: 77 02 23





Urrutiko jaurtiketak, Zuloaken arma bakarra.



Zuloak, talde beteteranoa, lan ederra egin eta gero, aurten bigarren.

ZULOAK: FINALEAN EZIN

Txapelketa txalogarria burutu du Zuloak talde beteteranoak aurten. Zorte pixka bat medio, eta Patxi Ugarteren esku bedeinkatua lagun, finaleraino iritsi dira. Larunbatean, ordea, toreroen orduan, huts egin zuten. Partidua lege onez galtzeaz gain, ezin izan zuten ohorearen golik ere lortu. Torpe xamar ibili ziren baloia mugitzerakoan, eta urrutiko jaurtiketak izan ziren euren arma bakarra. Ezin, finalean ezin.

Miren Garai Estetika Zentrua



- Gure Espezialitateak:
- Loditasuna: Goserik pasatu barik.
 - Tratamendu Organuterapikoa
 - Zelulitisa: Liposukzio eta lipoeskultura bidez.
 - Barizeak: Infiltrazioa eta Zirugia
 - Zirugia Estetikoa

Zarugalde 23-2. ezk. 79 96 90

DAGLAS B I D E O K L U B A

Otalora, 25 etxabea
Tfnoa: 79 78 19
ARRASATE

ARGI IBILI, BRONTZEA

lazko txapeladunek, Argi Ibilikoek brontzezko domina baino ez dute lortu aurten. Zaletu gehienen pronostikoetan sartzen ziren txapelketaren irabazle potentzial gisa. Finalerdietan huts egin zuten Zuloaken kontra, ordea. 3. eta 4. postua erabakitzeko partiduan bosna berdindu zuten Lenitzekin. Penalty puntutik, Argi Ibili nagusi. Urrearen faltan, brontzearekin konformatu behar.



Argi Ibili 5, Lenitz 5. Penalty erabakiorretan Argi Ibili nagusi.



"Beti jai" presionatuta, eta beraz Federi emango dio baloia.



lazko txapeladunak erasora, Luma Uribealgoren batutapean.



Argi Ibiliko atezainaren lana erabakiorra izan zen, penaltiyetan batez ere.

Ciclos Lopez

ARRASATE HOLKULARITZA

- JURIDIKOA
- FISKALA
- LABORALA
- ASEGURU ARTEKARIA

Maalako Errabala, 7 ARRASATE
Tfnoa: 79 01 47

LENITZ, LAUGARREN

Lenitz Garagardotegia ere txapelketako talde onenatarikoa izan dugu zalantza barik. Finalerdietan ezin izan zuten Trikiti taldea gainditu, ordea, eta beraz larunbatean kontsolazioko finala jokatu zuten. Aukera ederra izan zuten Argi Ibiliri irabazteko, markagailuan 5 eta 3 aurreratu baitziren. Azkenean parra egin, eta Lenitzekoak galtzaile izan ziren penalty-puntu bedeinkatutik.




Lenitzek baloia lapurtu, eta Ignaziok kontraerasoa hasi.



Fede, Ignazio eta Carlos, hirurak adi, beste atean zer gertatuko...



Lenitzekoak erasoan. 5 eta 3 aurreratu ziren, baina azkenean ezin...



Ignazio Vinagre, txapelketako jokalaria onenatarikoaren estiloa.

MEMESA

ZARUGALDE
KALEAN...
BRANKA
TABERNA

Bukatu da aurtengoa... gora datorrena!

Zaldibarreko txapelketa klasiko bihurtu da dagoeneko mondragoe aldean. Gatxa da imajinatzea frontoia jende barik, futbito barik, ulu-barrere-protesta barik... ohitu egin beharko gara, ordea, 92-93koa bukatu egin baitzaigu. Maritxuren bixamona berriro iritsi arte, akabo.

Antolatzaileei, zorionak. Hankasartze eta guzti, borondate itzela erakutsi dutelako mila gazte inguru mugitzeko. Kirolaren alde ari direlako. Eta ze demontre, azken finean benetan lan desagradablea egiten dutelako, zenbat burukomin eta nahaste-borraste. Aupa zuek.

Akaso, proposamen bat, soberan gelditu den diruarekin hartutako erabakia dela eta. 72 taldeen xoxekin 26 afaltzera bidaltzea baino, askozaz politagoa izango litzateke txapelketa bukaeran guztientzako bazkari popularra antolatzea, Zaldibar inguruan, lagunarteko giroa potentziatu



eta asuntuari martxa gehiago emanaz.

Proposamenak proposamen, larunbatean egun haundia disfrutatu genuen berriro.

Trikitik ondo merezita irabazi zuen finala, atzekaldean sendo eta kontraeraso azkarrean fin. Lau txitxarro, lau. Zorionak.

Zuloakekoei barrez, ziur gustu txarra geratu zaiela. Denboraldi borobila egin eta gero, finalean ezin gol bat bera ere lortu. Ohorearena. Ezta Guridik *a la olla* bialdutako baloietan ere!

91ko maiatzean Adelaidak eraman zuen txapela, 92an Argi Ibilik, eta oraingoa

Trikitik. 94koa nork? Urtebete barru jakingo dugu hori.

Zaldibarrek aurrera egingo baitu, Mondragoe aldean klasikoa bihurtu den txapelketa delako. Bai, gatxa da imajinatzea frontoia jende barik, futbito barik, ulu-barrere-protesta barik...

Ezta?

Trikiti

S. L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

● *Gaizka Barandiaran*

Ikerle mondrauetar nekaezina

1916an jaio zen Oñatin eta umetan mondragoen bizi izan zen. Familia Arrasaten dauka, baina urte asko da herritik alde egin zuela. Marko-Etxeberrin bizi du anaia, Bixente.

Folklorearen aztertzailea, idazle, ikerlari, latin eta grekerako obren itzultzailea, liburu, artikulua eta ipuin askoren idazlea, Jesuita da eta Loiolako Santutegian dihardu, nekaezin, liburu eta idazki artean.

— Jesuita bezala leku askotan ibili zara...

— 1932an sartu nintzen jesuita Belgikan, gero hona etorri eta filosofia egiten hasi nintzen. Durangon eta Oñan egon, eta bitartean, anaia nagusia soldadutzatik libratzeko, Bartzelonan Jefatura militarrean. Ikasketak bukatu, Javierren umekin hiru urte egin eta filosofiako beste titulu bat atera nuen. Tuteran, Donostian eta azkenik Loiolara etorri naiz neure lanak bukatzera.

— Dantzen ikerketa eta horren inguruko lana nola hasi zenuen?

— Lehen dantza taldetxoak Javierren izan nuen. Durangon nengoela hango dantzak ikasi nituen. Aspiazu elgoibartarrari ikusi nion lehen dantzak aurrekoa eta berri ikasi nion. Folk International elkartearen sartu nintzen eta ordutik aldizkari askotan hartu izan dut. Ikerketa asko egin izan dut hemengo folkloreatz. Francoren garaian, guzti hori oso gaizki zegoen, eta dantzak ere galtzeko zorian zeuden eta horiek bildu eta zehatz mehatz konpas guztiak jasotzea izan zen nire helburua.

— Gaurko dantza giroa nola ikusten duzu?

— Esaten dutenez, eta nik ikusten dudanez, oso ondo. Lehenbizi, nik entzun dudanez, asko ez sartu arren, elkarterik onena eta biziena Euskal Dantzarien Biltzarra da, zazpi probintzietan. Guk hasitako Euskal Dantza jaialdiak jarraitu egiten du. Uste dut gaurko egunean 20.000 euskal dantzari egongo dira, eta 340 bat talde.

— Eta zenbat dantza?

— Zaila da hori esaten. Lehenbizi errito bezala asko eta gero ihauteriko dantzak,



joko dantzak (ezpata dantza eta horrelakoak). Galdu, Bizkaian industria etorri zenean asko galdu ziren, beste herrialde batzuetan bezala. Alemanian ere industrializazioarekin folklore dena galdu da.

— Arrasate inguruak badu dantza berezirik?

— Mutikotan ikusi nuen San Miguel izeneko gizon bat, eta aurrekoa egin zuen kioskoan, eta horrek ere Elgoibar koaren antza zeukan. Gero, beste bat, mutikotan askotan ikusten nuena, kioskoaren inguruan neska eta mutil jarrita, trikitixa dantzatzen zuten. Hemengo doinua oso berezia zen eta urtetan egon naiz noiz entzungo eta azkenean entzundut eta oraindik bizi da. Oliakoek Nafarroako dultzai-

na jotzen zuten eta politto, gainera.

— Aretxabaletako txino dantza?

— Ez da txino dantza, txin txin dantza da. Hortaz esan dezaket zeozer. Getariara etortzen nintzen oporretara eta banekien behin Donostiako zezen plazan sorgin dantza ikusia nuela, eta azkenean Orian ikusi nuen. Sorgin dantza hori hiru langilek ekarri zuten Bergaratik. Filaturas lantegiaren 100 urte zirela eta berriztu zuten, eta handik atera nuen. Hori eta Aretxabaletan dantzan egiten dena, dantza bera da nire ustez. Herriherrikoia da, eta txin txin eginez irteten da, eta hortik ize-na, baina jantziei begiratuta atera zen "txino".

— Idaztean ez zara batua zalea.

— Batua bai, baina nola batu? "h" a kasu batzutan ondo ikusten dut, baina hainbeste? Niri garbizalea esaten didate, baina entzuten diren gauza batzuk ez dira euskara ere.

● **“Arrasaten bertako trikitixa doinua dago, eta musika hori oraindik ere gordetzen da”**

AEDren laguntzaz

Gazte Mobidaren lehen pausoak

Rosa Mondragon

Irailen 1992-93ko ikasurtearekin batera, talde berri bat ezagutu dugu AED elkartearen barruan: Gazte Mobida. Gazte talde hau sortu arte, badi-rudi gazteek ez zutela partehartze handirik AEDko ekintzetan eta partehartzen zuten ekintzetan ere, indibidualki izaten zen eta ez talde bezala. "AEDri jarraipena emango diogunak ere gazteok izan behar dugu, eta talde bezala gerora begira, indarra hartuz joan behar dugu, zeresana eukitzeko" komentatzen digute.

BI HELBURU

AEDren inguruan eta elkarte honen laguntzarekin sortutako taldea denez, elkar-teak berak jarraitzen dituen helburu berak dituzte. Alde batetik eta inportanteena euskararen erabilpena bultzatu eta bigarrenez, herriko gazteak bildu. "Azken finean gazte arrasatearrak euskararen inguruan biltzea da gure helbururik inportanteena. Maila batean lortu dugu baina hasi besterik ez gara egin eta helburu hori da aurrerantzean jarraituko duguna, na-

hiz eta aurretik jakin lortzea ez dela bat ere erraza" esaten digu Rubenek.

EKINTZA UGARI

Gazte Mobidaren lehen-dabiziko hilabete hauetan ez dute, ez, denborarik galdu eta ekintza ugari burutu dute.

Eman diezaiegun errepassu bat. Lehendabizi elkar ezagutzeko eta harremana sendotzeko, Ozaetan egon zinen; Santamasak aprobetxatuz gaztaina jana antolatu zuten Herriko Plazan; Inñurategi anaiekin Makalu mendiari buruzko diapositiba emanaldia;

Gabonetan Doneztebera irteera; Santa Ageda bezperan kantuan irten ziren trikitilari eta guzti; Iratxe Ibarra, Unai Iturriaga eta Igor Elorzarekin bertso afaria Elkartu elkar-tean; Aste Santuan aste gaztea nesken futbito txapelketa eta bikingo bazkariarekin; hiru handietara igoera; dantza ikastaroa eta azkenetarikoko ekintza Jabi Tramonek Gani-biari buruz eskainitako hitzaldia. Hauek bukatu dira jadanik baina badituzte beste proiektu batzuk ere. San Juanetarako Gazte Mobidarekin identifikatuko diren kamiseta batzuk ateratzeko asmoa dute eta horretaz gain, Iparraldeko Seaskako ikastolei laguntzeko auzolandegiak antolatu nahi dituzte. "Oraindik proiektu bat besterik ez da -esaten digu Anerrek- baina denborarekin zerbait lortzea espero dugu. Hasteko datorren astean gutariko batzuk Iparraldera joango gara bertako egoera ezagutzen eta piska bat auzolandegi horiek prestatzen".

PARTEHARTZE DESBERDINA

Ekintza guzti hauek herriari zabalik burutu dira eta publikoak izan dira, hala ere, partehartzea ez da askotan espero zena izan. Ekintzarik arrakastatsuenak Santamase-



Elkar ezagutzeko toki desberdinetara irteerak egin dituzte.

JABIER




Santa Ageda bezperan eta nobedade bezala kantatzen irten ziren Gazte Mobidako gazteak

JABIER

tako gaztaina jana eta hiru handiak izan dira eta beharbada partehartze gutxien izan dutenak aste gaztearen barruko ekintzak. "Aurten arrakasta gehien izan duten ekintzak datorren urtean ere errepikatuko ditugu eta ea horrelako beste batzuk antolatzen ditugun, herriko gazteen partehartzea bultzatzeko, batez ere" dio Nerek.

BESTE GAZTE TALDEEKIN KONTAKTUAK

Gazteak gazte, antzerako beste hainbat talde sortu da herrian azken urteotan eta AEDkoek, horiekin nolabait kontaktuak momentuz hastea nahi izan dute. "Egia esan



**azte arrasatear-
rrak euskararen
inguruan biltzea
da gure helburu
nagusiena.**

nahiko arrakasta handia izan dugu maila honetan eta Besaide mendizale elkarte, Al Andalus, Corazon de Encina edota Gaztetxekoekin ere izan ditugu harremanak. Aretxabaleta eta Eskoriatzakoekin ere ekintza puntual batzutan kontaktu batzuk euki ditugu. Anekdotak bezala, Hiru Handiak egiten joan ginenean Gatzagako alkatearen ahotik gonbidapena jaso genuen Gatzagako gazteekin ere kontata dezagun eta hurrengoan ez ahazteko hango gazteekin" dio farrez Igorrek. Baina oraindik zeregin asko dute, betiko hamar-hamabiak biltzen dira askotan eta antolatzaile lanetan ere berdinak aritzen

dira; zer gertatzen da herriko beste gazteekin? Euskararen erabilpena oztopena da? "Ez dakit, baina oraindik ere nire ustez jende askok talde edo kuadrila bezala ikusten gaitu eta hori ez da egia, talde honetan sartuta gauden gazteok, hasieran ez genuen elkar eza-gutu ere egiten. Orain dela hilabete bat edo beste asko sartu dira eta momentu honetan guztiz integratuta dago taldean" dio Nerek. Euskara aldetik ere ez dute oztopena gehiegirik ikusten, Al Andalus-eko gazteekin izan dituzten kontaktuak euskara hutsean izan dira eta hauekin posible izan bada, herriko besteekin ez luke zailagoa izan behar.

AEDko Gazte Mobida: beste alternatiba

Zergatik sartu zineten Gazte Mobidan? horixe da talde honi luzatu diogun galdera eta erantzunak honako hauek izan dira: jendea ezagutzeko, giroz aldatzeko, tabernetatik irteteko, betiko koadrilatik irteteko, euskararen munduan zerbait aportatzeko... azken finean, beste alternatiba bat da. Hilabete hauetan izugarrizko indarra sortu da euren artean, baina talde irekia da, arrasatear guztien laguntza eskatzen dute, noski, gazteena batez ere. "Norba itortzen animatzen bada, seguruenik geratu egingo da; dena dela, frogatzera animatuko nituzte gazte denak, zergatik ez dira behin etortzen? zergatik ez hurbiletik ezagutu?" onartzen dute aho batez. Adin aldetik, 17 urtetik gora, gazte sentitzen den edozein sar daiteke taldean. "Badakizue, erreportaiak irakurri eta interesik baduzue, ostiral arratsaldetan eta AEDko lokalean biltzen gara. Anima zaitzete!" diote.

"SEKTA PANDERETA"

Sekta Pandereta, horrelaxe deitzen diote Arrasatear batzuk AEDko Gazte Mobidari. "Beharbada, ekintza desberdinetan kalera irteten dugun bakoitzean, umore ona izaten dugulako nagusi, edota trikitalari, soinu-jole eta panderetakin erlazionatzen gaituztelako, egia esan ez dakigu oso ondo, baina irudi hori baldin bada orain arte zabaldu dugula, ez dago hain txarto, ezta?" esaten digu Anerrek.

ARKOk bi lanpostu bete behar ditu

1. ATBko arduraduna

Lanpostuaren betebeharrak:

- Erredakzioaren ardura
- Talde osoaren koordinaketa
- Programazioaren ardura
- Aurkezle lanak

Beharrezko baldintzak:

- Kazetaritza edo ikus-entzuteko komunikabideen ezagupena
- Euskara ondo menperatzea

2. ARRASATE PRESSeko maketagile- diseinatzaile-kazetaria

Lanpostuaren betebeharrak:

- Arrasate Press eta ARKOk maketazio, diseinu eta kazetari lanak egitea.

Beharrezko baldintzak:

- Macintosh ordenagailuaren programa hauen ezagupena:
 - PageMaker
 - QuarkXPress
 - FreeHand
 - Mc View
- Euskara ondo menperatzea

Kontratuak printzipioz urte beterako izango dira.

**Izena eman eta curriculum-a aurkezteko epea:
ekainaren 10ean eguerdiko 12etan amaituko da.**

Informazio gehiago: 77 08 15 edo 77 06 90.

LABURRAK

Txirrindulariak deskalifikatuta

Arrasaten ospatutako Gipuzkoako kadeteentzako taldekako erlojupeko txapelketak zapore gazi-goza utzi zuen gure txirrindulariengan. Izan ere, Almacenes Arrasate taldeak egin zuen ibilbidea azkarren, baina epaimahaiak deskalifikatu egin zituzten mondrauetarrak, antza denez, txirrindulariek dorsala jarri barik irten zutelako. Dorletako Ama taldea 6. izan zen froga berean.

Emakumezkoen Mondra finalean

Aretxabaletan 0-1 irabazi ondoren (lehen partiduan, 5-0), Mondrako neskak Gipuzkoako Kopako finalera iritsi dira. Irungo Dunboa taldea izango dute finalean buruz buru, Zumarragako Argixao zelaian, igandeko 11.15etan. Nahiko pareko taldeak dira Mondra eta Dunboa, eta ez dago faboritorik. Hori bai, Mondra inoiz baino hobeto dago.

24 ordu igerian

Ekainaren 11 eta 12an, Arrasateko kiroldegian igeriketako 24 orduak ospatuko dira. Jende guztiarentzat irekita dago froga, eta helburua zera da, izena eman duten guztiak txandaka igerian egingea ea zenbat lortzen den. Iaz, 12 ordutan, 33,5 km. egin ziren. Izena emateko: 790427 edo kiroldegian galdetu.



- Garbitasun orokorraketa mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

Iñaki Zeziaga
Bi hitzetan: "Suerte txarra"

2. B mailara igotzeko play-off-ean Mondrak 3-0 galdu zuen Egües-en eta asteazkenean etxean 1-1 parra Uteborekin. Emaizta kaskarrak, baina Iñaki Zeziaga entrenatzaileak ez du itxaropenik galdu. Izan ere, orain arte egindakoa ere ez da gutxi.

— Badago oraindik igotzeko aukerarik?

— Bai, zortzi puntu gelditzen dira. Escobedok 5-1 irabazi zion atzo [asteazkenean] Egüesi, eta kontuan eduki behar da azken bi partidua Escobedoren aurka dauzkagula. Datorren igandean Utebon irabazten badugu, oraindik aukera asko dauzkagu. Horren aurrean, ekipoa animatu egin behar dugu, eta pentsatu Utebon irabaziz gero, Escobedo dela kontrako arriskutsua. Oraindik badaukagu esperantza, beste gauza bat izango da Utebon galtzen badugu, orduan esan daiteke dena galduta edukiko dugula.

— Nola laburtuko zenituzke orain arteko partidu biak?

— Bi hitzetan: suerte txarra. Egüesen 3-0 galdu, baina uste dut irabazi egin



behar genuela. Ekipoak ondo jokatu zuen, okasio asko, baina ez genuen sartu, eta futbola horixe da, gola sartzea. Atzo beste partidu bat izan zen, Egües baino ekipo gehiago da Utebo. Atzo ere eduki genituen sartzeko 3 edo 4 okasio, baina suertea, batzuetan aldera eta beste batzuetan ez egoten da. Baina topatu egin behar da suertea, eta gu topatzen gabilta, ea igandean...

— Jokalarien lanarekin pozik?

— Oso pozik. Atzo partidua bukatzean denak zeuden apur bat burumakur, apurtuta, eta esan nien, benga, burua gora. Partidua gogorra izan zen eta pozik nengo. Kon-

tuan izan denboraldia oso luze doala, 40 partidu jokatzeko oso gaitza da. 21ekin hasi ginen, bik utzi, gero Txosa ez zegoela ondo, play-off-ean Moreno lesionatu eta 17rekin gaude. Jendea kaskatuta dago, baina errendimenduetarekin, oso pozik.

— 2. mailara igotzeko ere, denboraldi positiboa?

— Oso positiboa. Gure helburua ez jaitea zen. Gero ikusi da goian ibili gaitela eta play-off-ean sartzea izan zen helburua. Sartu gara, eta ilusio askorekin. Gure ilusioa litzateke igotea 2. mailara, baina ikusten da gauzak ez direla hain politak.

— Zer eskatzen diezu orain zaletuei?

— Uteboren kontrako partidu inportantea zen, baina jende gutxi egon zen. Jendeak ez zuela erantzun uste dut. Pena bat izango litzateke, urte guztian jendea ekipoarekin egonda, azkeneko bi partiduetan Egües eta Escobedoren kontra, jokalaria bakarrik egotea. Lagundu egin behar zaie jokalariari, kriston denboraldia egin dute eta merezi dute, hori eta gehiago.



GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA

Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

Osasun-arazoak zahartzaroan: prebentzioa (eta II)


Adinekoengan ematen diren gaixotasun eta ezintasun garrantzitsuenek prebentzio partzial edo osoa izan dezakete. Paseo eta eskulanean bitartez gorputzaren ahalmen eta trebetasun psikomotorea garatzen dira. Kulturarekin zerikusirik duten aspektu batzuk, adibidez soziedade bizitzan parte hartzeak, irakurri, musika entzun eta abarrek, errealitatearekiko lotura indartzen dute. Igeri egitea eta oinez ibiltzea gorputzeko hezur eta giharrak sendotzeko eta nerbioak baretzeko oso onak dira. Ikusten dugunez, oso garrantzitsua da gogotasuna izatea, aktibo mantentzea.

Bestalde, lehenbaitlehen kontrolatu behar dira tabakoak eta hipertentsioak sortzen dituen arnas eta bihotzeko arazoak, loditasuna eta dieta.

Gaur egun, zehatz-meha-

Abere elikagaiak

- Okela eta eratorriak
- Arrainak eta eratorriak
- Arraultzak
- Esnea eta esnekiak



Landare elikagaiak

- Barazki egosiak
- Barazki gordinak
- Ekosariak (lekariak) eta fruituak
- Laboreak (zerealak) eta frutak

tz dakigu adin bakoitzean nolako beharrak dituen gorputzak eta zein den dieta orekatzeko egokia.

Dieta orekatuak triangeluaren profila erakutsi behar du, hau da, dieta osatzeko orduan, azpian dauden elikagaietatik kopuru handia erabili behar da (laboreak eta frutak, edota esnea eta esnekiak), erdian daudenetik kopuru

txikiagoa eta azkenik goian daudenetik (okela eta eratorriak) oso kopuru txikia erabiliko dugu.

Esnearen arazo bakarra koipea da. Horregatik komenigarria da helduek esne deskrematua edatea. Gozokiak (pastelak, edari gozoak eta abar) oso txarrak dira, kaloriak ematen dizkiote gorputzari baina kaloria hutsak dira,

hau da, oso mineral eta bitamina gutxi dituzte. Gorputza bete egiten da kaloriak baina ez dute elikatzen, desmineralizatu eta ahuldu baizik.

Aholku hauek jarraituz gero, osasuntsu, kementsu izateko eta loditu gabe jateko parada izango duzue.

On dagizula!

**EUGENIO ITURRIOTZ
MEDIKUA**

**"EDERTU"
ileapaindegia**



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



PEUGEOT-TALBOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



HAURTOKO


Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

**Euskaltzale,
ekologista,
feminista,
intsumiso,
langile,
gazte borrokalari,
jende jator,
abertzale...**

**ASKO GARA,
BERAIEK
SINISTARAZI
NAHI DIGUTENA
BAINO
ASKOZ ERE
GEHIAGO.**

**BAINA
ERAKUTSI EGIN
BEHAR DIEGU.**

HERRI BATASUNA



bozkatu



Ondo jaztea eta gainera eroso joatea gustatzen bazaitzu...



*Zugandik hurbil eta harrituko zaituen prezioekin San Andresen,
autobus geltoki ondoan.*

Araba Etorbidea, 18 ARRASATE Tfnoa. 77 14 86



KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT.

Astore, Reebok, Nike,
Adidas, Mito, Karhu, Avia,
Saucony, Quicksilver,
Libero, Línea 7, Asics,
Salewa, Boreal, Bestard,
Ellesse, Lutha, O'Neill...



**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzeziño, 8
Tfnoak: 79 46 12 / 77 12 47
ARRASATE

U

rtea, 1960a edo. Besaidek antolatutako eskurtsioetako bat zen, Errioxara urtean behin egiten zena. Labastidako monumentu baten aurrean atera zuten erretratu, Jose Mari Lasagabasterrek atera zien gainera. Toloñora eta San Lorenzora joaten ziren, baina denak ere ez, izan ere eskurtsioan autobusean joaten zirenen artean mendizaleak bakarrik ez, ardozaleak ere izaten ziren. Eginkizun horrekin joaten zirenak ere asko izaten ziren, nonbait.

Goitik hasita, **Gregorio Etxabe** eta **Juan Madina-beitia** "Valor"; hurrengo lerroan **Bixente Zeziaga** "Oxiña", **Juan Kruz Uriarte**, **Patxiko Uribe**, **Jose Luis Arriaran** eta **Eraña** "Kaxo". Behean, **Jose Mari Vitoria**, **Juan Mari Lasagabaster** "Kuku", **Juanito Atienza**, **Jesus Marco**, **Jabier Urrutia**, **Jon Bengoa** eta **Sabin Berezibar** "Atxipitxi".



Mondeo

MUGARRI

Mondeo



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Pisu bat behar da alokatzeko.** Hutsik ba dago hobe. Tfnoa: 77 11 22. Gauez.
- **Laredon uztailean apartamendua** alokatzen da. Hondartza ondoan. Tfnoa: 79 52 80.
- **Torreviejan (Alicanten) apartamendua alokatzen da** ekaina, uztaila eta abuztuan. Hilabete osoetarako edo hamabost egunetarako. 78 14 72.
- **Pisua saltzen da erdialdean.** Tfnoa: 79 37 96.

Lana

- **OHOko zein ingelesezko klase partikularrak ematen dira** (maila guztiak). Tfnoa: 79 45 60. Sonia.
- **Ordenadoreetan lanak egiten dira.** 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.
- **Neska gertu dago umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 77 94. M^a Eugenia.
- **Esperientziadun emakumeak etxeko lanak egin eta umeak eta/edo pertsona nagusiak zainduko lituzke.** Tfnoa: 77 05 49.
- **Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 77 01 43. Idoia.
- **Esperientziadun neska** pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Tfnoa: 79 72 92. Elena.

- **Prest nago atarte, bulego eta lokal komertzialak garbitzeko.** Tfnoa: 79 49 05. Eburne.
- **Gertu nago umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 82 98. Sonia.
- **Lan barik nago. Edozein almazenetako edo antzerako lanetan lan egingo nuke.** Tfnoa: 78 00 63.
- **Alemaneko ikastaro trinkoak uztailean.** Ordu-tegia konkretatzeko. Tfnoa: 79 78 75.

Salerosketak

- **Nikon argazki makinarentzako duplikatzaile makroa salgai.** Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 77 12 28. Jabiertxo.
- **Egoera onean dauden Razesa markako bizikleta salgai.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 86 72.
- **Karabana saldu nahi dut.** Adria karabana salgai, 4-5 personentzako, oso egoera onean. Abantzea eta frigorifikoa. Tfnoa: 76 49 14. Gaueko 9etatik aurrera.
- **Vespa motorra SS-V salgai.** Tfnoa: 79 91 41.
- **Opel Corsa City, BI-AK saltzen dut.** Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan (94) 620 19 18 tfnora. Gorka.
- **Barku itxurako ohea, antzinakoa eta antzinako komora salgai.** Tfnoa: 79 93 06. Nati
- **Bi hilabeteko bobtail txakurra salgai.** Tfnoak: 79 16 38 eta 77 10 86. Marije.

- **Busthner karabana salgai.** 6,70 metroko neurrikoa. Oso prezio interesgarria! Tfnoa: 79 42 65. Andoni eta Konsuelo.
- **Suzuki Lido markako moto berria salgai.** Gauzak eramateko maleta ere badauka. Tfnoa: 79 38 16.
- **Moto Guzzi "Custom" 1000 c.c. motorra salgai** 400.000 PTAtan. Tfnoa: 7987 62. Joxe.
- **Imar markako karro-denda salgai, alboko abantze eta kutxa handia barne.** Oso gutxi erabilia. Tfnoa: 79 76 07 Jaime.

Denetarik

- **Identitateko txapa kataiduna galdu da;** Danel izena jartzen du eta 1-5-93 eguna. Arrasateko 79 37 00 telefonora dei egin gaueko 9etatik aurrera, edo ARRASATE PRESSERA bertara. Eskertu egingo da.
- **Erloju bat aurkitu dugu Musakolako jaietan.** Zurea bada, dei egin ARRASATE PRESSERA.
- **Pisu larregi duten 100 lagun behar ditugu.** Produktu natural iraultzailea medikuek gomendatua arriskurik gabeko proba. %100 garanti-zatua. Informazioa: 79 04 62. M^a Jose.
- **Inperdible bat daukan giltza joko tapatu dut.** Zeurea bada jo Udaltzaingora.
- **Frantziako Pau herriko neska batek Arrasatera au pair modura etorri nahi du irailetik otsailera.** Tfnoa: 79 54 46.Urri.

Aste Gazte

Oporraldiak

18-19 urte bitartekoei zuzendutako egitaraua (Diputazioa): astebeteko egonaldiak toki ezberdinetan (Hecho, Linza, Lleida...) era askotako kirol eta aktibitateak praktikatzen (piraguismo, zaldiz ibilaldiak, mountain bike, puenting, gouming, tirolina, kanoi jeitsierak, rapela, eskalada, espeleologia...) Uztaila nahiz abuztuan. 10.800 PTA bitarteko prezioak. Xacobeo bidaiaria ere antolatu dute. Izena emateko epea ekainaren

15ean amaitzen da.

Auzolandegiak

Debako talde etnikoekin lan egiteko auzolandegia. Hezkidek antolatua. Uztailearen 12tik 25era. Baldintzak: 20 urtetik gora, taldeetan esperientzia. Doan da, ez da inongo kuotarik ordaindu behar. Izena emateko epea: ekainak 15erarte.

Ikastaroak

Zaldian ibiltzeko ikastaroak Urkulun. Uztailean eta irailean.

2 astekoak, egunero ordubate. Goizez nahiz arratsalde. Matrikula: langabetu eta ikasleentzako 6.000 PTA eta 9.000 PTA gainontzekoentzat.

Parapente, rafting, piraguismo eta kañoi jeitsierak. Ikastaro ezberdinak. Langa-betu eta ikasleentako prezio bereziak.

Lehiaketak

"Gazteak Martxan" Arrasateko IV. Argazki lehiaketa. 2 maila: a) Deba garaiko 14-20 urte bitarteko gazteak. b) 21-35 edozein. Zuribeltzez nahiz koloretan. Sari garrantzitsuak. Epea: urriak 29.

"... hamabost urteak, sentsibilitate bizia eta oraindik kontzientzia lokarturiko adina".

A. MORAVIA
"LA DISUBBIDIENZA"



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Manoli Aparicio Raos dendako



- **Telebistako lehiaketak ikusten dituzu?** Batzuk bai, baina hainbeste daude...
- **Katua ala txakurra?** Txakurra. Orain dela gutxi txakur txiki bat hil zaigu eta pena handia hartu dugu.
- **Zure ohea egunero egiten duzu?** Bai, beharko egin.
- **Etxeko lanetan abila zara?** Bai, beti presaka egiten ditut baina...
- **Arratoiei beldurrik?** Beldurra bakarrik ez, higuina.
- **Gaixotasunei beldurrik?** Bai, gutxi dela ulzera euki dut eta zaindu beharra dut.
- **Zein da zinean ikusi duzun azken pelikula?** Puf! "Enmanuelle" uste dut.
- **Eta irakurri duzun azken liburua?** Ez naiz izenburuaz gogoratzen, nire alabari lagundun irakurtzen.
- **Herriko Udalean konfidantzarik?** Bai, orain arte ondo portatu dira nirekin.
- **Arrasateko egoera ekonomikoa zela ikusten duzu?** Gaizki, guk momentuz ez dugu gehiegi igarri baina...
- **Inguruko mendiak ezagutzen dituzu?** Bai, lehen asko joaten ginen mendira.
- **Idazteko ohiturarik?** Bai, baina hori ere denbora faltagatik alde batera utzi behar izan dut.
- **Noiz da zure urtebetetzea?** Otsailaren 27an.
- **Horoskopoa sinisten duzu?** Ez beti irakurtzen dut baina kasu gehiegirik egin gabe.
- **Drogari irtenbiderik?** Ez dakit, baina guraso denoi gustatuko litzaiguke irtenbidea ezagutzea.
- **Euskal Herriko historia ezagutzen duzu?** Ez, gehiegi, zerbait.
- **Erretzaileen alde ala kontra?** Kontra, gaixotu baino lehen neuk ere erretzen nuen arren.
- **Gustora dendarekin?** Bai, momentuz oso ondo doa negozioa.
- **Zapata konpontzaile ona zara?** Ni ez, baina nire senarra bai, oso ona.

BERTSOAK

San Frantziskoko anai Rufinori

Anai Rufinori buruz nai det zertxobait asi esaten oso gazterikan sartu ziñan zu fraile konbentu baten ogeita amar urte inguru badaramazki ia emen mutil zar jatorragorik ez det ezagutu Arrasaten.

Fraile au beti somatu izan degu beti umore onian San Frantziskoko konbentu ortan sukaldaritza lanian edozeini eskua luzatuz baldin badago premian orregatik maitatzen degu ainbeste gure errian.

Lagun unkoa maite izan dezu zuk beti besteak beste hainbat alditan alaitu ere bai inor bazegoen triste edozein ondo artu izan dezu zuk bai zar eta bai gazte Tamalez eziñ zaitut goraldtu merezi dezun ainbeste.

MAXIMO

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Arantzazu Idigoras

Bentio Lertxundiren kantak lantzen

Txikitatik musika munduan mugitu da Arantzazu eta goi mailako musika ikasketak burutu ditu. Tesi bezala Benito Lertxundiren kanten bilduma didaktikoa burutzen ari da.

— Zeintzuk dira musika mailan egin dituzun ikasketak?

— Txikitatik gustatu izan zait musika eta horregatik ahal izan nuen bezain laster, horretan sartu nintzen. Ikasketak ere musika munduan burutu ditut. Pianoan eta akordeoian goi mailako titulua dut, armonia, kontrapuntua, musikaren estetika... goi mailako musika ikasketak burutu ditut, azken finean. Eta iaz tesi bezala eta Kontsebatorioko ikasketak bukatzeko, Benito Lertxundiren kanten bilduma didaktikoa egiteko esan zidaten. Hasiera hasieratik asko gustatu zitzaidan ideia, kanta horiek asko gustatzen zaizkidalako eta askotan entzun ditudalako, gainera. Baina, lanean hasi nintzeanean ikusi nuen ez zela hain erraza.

— Zer da bilduma didaktikoa?

— Beno, ez da Benitok egin dituen kantak biltzea, kanta bakoitzaren partitura ere zehatz-mehatz egin



behar izaten da eta kasu honetan nahiko zaila izan da hori egitea, Benito Lertxundik ez baitu kanta askoren partiturarik egiten. Musika eta hitza batera pentsatzen dituenek, ez du partiturarik egiten. Horregatik, nire lana kanta bakoitza entzun ahala eta belarritz, partitura denak osatzea izan da. Eta ez hori bakarrik, armonia eta

.....

“Kanten azterketa didaktikoarekin, edonork irakurri ahal izango ditu Benitoren kantak, partiturak zehatz-mehatz konkretatuta baitaude”

akordeak ere zehaztu egin behar izan ditut. Baina, beno, esan behar da arazo hau nahiko arrunta dela abeslarien artean, abeslari bakoitzak jendearentzat gustoko izan daitezkeen kantak aukeratzen dituelako, beste gauzetan pentsatu gabe eta oso kantari gutxik egiten ditu gaur egun partiturak, bozeto antzerakoak bai, baina partitura-rik ez.

— Nolako erabilpena izango du lan honek?

— Oskorrik azken kantekin egin duen liburua bezala, Benitoren kanten bilduma honekin, musiko bakoitzak kantak jo eta irakurri egin ahal izango ditu. Benitoren 94 abestien partiturak bilduko ditut eta hori kontutan hartuz, bakoitzak partiturak hartu eta akordearen arabera kanta guztiak abestu edo jo egin ahal izango ditu. Lan honekin, pasa den urtean hasi nintzen, baina osasun arazoengatik ezin izan nuen bukatu eta momentu honetan azken kanten partiturak egiten ari naiz. Horretaz gain, nire irakasleak kanta guztiak zuzentzen ditu, berak baieztatzen ditu, behar baitu kanta guztien partiturak ondo daudela. Irailean enkuardenatuta aurkeztuko dut.

LABURRAK

Justo Garate Arriola beka

Bergarako Udalak giza-zientzien alorrean ikertzaile gazteen artean ikerketa sustatzeko Justo Garate Arriola beka antolatzen du aurten ere. Ikerketa lana euskaraz burutuko da eta diru zenbatekoa 935.000 PTAkoa izango da. Pertsona batek zein lan-taldeak eska dezake beka eta eskatzaileek, 35 urte baino gazteagoak beharko dute izan. Dokumentazioa aurkezteko epea irailaren 1etik 30era bitartean zabalduko da.

Dantzarien Eguna

Ekainaren 20an haur dantzarien eguna ospatuko da Arrasaten. Hori dela eta, herrira haur asko etorriko denez, herritarren laguntza eskatzen da haur hauek bazkaltzen gonbidatzeko. Haur dantzariaren bat etxean bazkaltzen gonbidatu nahi izanez gero, eman lehenbaitlehen ize-na AED edota HIRE liburudendan.



Begoña

lurrindegia
Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
 Musakola Auzoa,
 Tfnoa: 79 03 73

.....

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

.....

BAZAR
 TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

FELIPE
MADINA
ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
 Tfnoa: 79 13 78

ASTRONOMIA

URRUNAGORA GOAZ

Gauean ikusten ditugun izarrak, gure Eguzkia bezalakoak dira. Batzuk handiagoak, beste batzuk txikiagoak, zaharragoak ala gazteagoak, baina hori bai, guregandik Eguzkia baino askoz urrunago daude.

Distantzia handi horiek adierazteko, ez dira ez metro ez eta kilometroa ere erabiltzen, numeroak ikaragarri handiak baitira. Distantzia izugarri horiek neurtzeko "argi urtea" derotzona erabiltzen da.

Argi izpiek segundu batean 300.000 Km. korritzen dute. Hemendik hilargiraino gutxigorabehera.

Eguzkitik gureganaino iristeko, 8 minutu inguru behar dute. Nahiz eta arinak izan, bide luzetxoa bete behar.

Eguzkiari begiratzen diogunean beraz (kristal ilun batekin hobe), ez dugu Eguzkia "dagoen" lekuan ikusten, 8 minutu lehenago "zegoenean" baizik.

Hau ez da batere harritzekoa, orkestra bat, Km. batetara entzuten badugu, jotzen duten baino 3 segundu geroago entzungo diogu. Gauza beragertatzen da, beraz, izarren desfile ikusgarria kontenplazten dugunean.

ERNEST BORN

HIES-Ekimenaren eskutik Kultur ekitaldi erraldoi eta bizigarria

Deba Garaiko HIES-Ekimenak ikuskari artistiko handia antolatuko du urte amaieran. Arrasateko pabilioi industrial zaharren batean, hiru astez, arte-lan, erakusketa, arte-tailer, stand, antzespen eta ekin-tzaz jositako kultur-bilgune bat eraikiko dute. Helburua, Sida edo HIES gaitzaren inguruan irudi bizi eta bizigarria zabaltzea. *Happening* handiaren izena, 'Adibidez'.


HIESaren nazioarteko egunean, abenduaren lein, irekiko litzateke Adibidez, eta Santo Tomas egunez (22an) itxi. Bilgunean, erakusketa ugari izango dira: arte plastiko guztien testigantzam eta baita HIESaren inguruan lanean dauden mundu guztiko taldeen materialen erakusketa bat ere. Erakusketa osatzeko, kontaktuak egiten ari dira HIES-Ekimenekoak arte munduarekin, baina beren deia Arrasateko eta inguruko artista eta jendeari luzatzen zaie. Beren lantxoekin lagundu nahi duenak, aukera polita izango du bere langintza publikoki kaleratzeko. "Dena boluntarioa izango da, jakina", azaltzen digute HIES-Ekimenekoek. "Elkartasuna da gure motore".

Erakusketez gain, ikuskinak ere izango dira. Mu-

sika arloan, rock taldeetatik hasi eta dantza taldeetara, trikitixatik pasata. Antzerkia, txotxongiloak, bideo emanaldiak, literatur irakurketak, kirol erakustaldiak, moda desfilea. Jendeak zuzenean parte har dezan ere aukera mordo: ikastaro eta tailerrak (argazkia, zeramika...), lehiaketak, moztorro-dantza, party-ren bat, kondoiaren eguna; eta guzti honekin batera, eztabaida eta hitzaldi sorta luze eta osotua.


Denentzako aukera, beraz.

Hiru asteko jai etengabea, beraz, izan nahi du Adibidezek. Honen bitartez ideia nagusi bat zabaldu nahi du HIES-Ekimenak, HIESa bizitzaren sinonimo dela, ez heriotzarena. Ideia bizigarri horretan laguntzeko, drogen edo minbi-ziazen esperientzia daukan jendea ere izango da erakusketan: ez delako galdu behar bizibilusioa eta indarra halako gaitz latzak izan arren ere.



Kartel aleman bat, HIESaren aurkako mezu batekin.

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

JOSTEKO
OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

• ESAERA ZAHARRA •

*“Ekaina eder,
uda balaber”*

• JEROGLIFIKOA •



Zer sentitu zenuen?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3		4	5	6	7
8			9				
10						11	
12					13		
				14			
15	16						17
18				19			

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arrasateko Sasi-Argazkilariak. 4. Intsektu hegalaria beltza. 8. Nabari. 10. Turrino. 11. (Ald.) Hortzak finkatzen ditu. 12. Zorigaitz. 14. (Ald.) Laztu aditzaren infinitiboa. 15. Itsasalde. 18. Zerbait bururatu. 19. Zein unetan.

Bertikalak 1. Berdintsu. 2. Ahalegin. 3. Abar ugari duena. 4. Oherarazi. 5. (Ald.) Behiak oihu egiterakoan. 6. Izotzaldi. 7. Norbait. 9. Ihardun. 13. Apal. 16. (Ald.) Dei-hitza, txo itsasaldean. 17. Ukatzeko hitza.

• HOROSKOPOA •

Aries Ahalegin guztia egin arren, ingurukoek ez zaituzte kontuan hartuko.

Taurus Aste honetan maitemintzen bazara, kontu handiz ibili aukeratzeko orduan.

Gemini Ez jokatu dirurik, galdu egingo duzu eta. Datorren astean beharbada.

Cancer Asteburuan bidai motz bat egingo duzu baina, ezin hobeto pasatuko duzu.

Leo Kontuz korriente hotzekin, katarroa hartzeko arriskua izango duzu eta.

Virgo Herri bateko jaietara joaten bazara, ez berandu heldu etxera, bestela amak...

Libra Aste borobila izango da zuretzat, goza ezazu ahal duzun neurrian.

Scorpio Ea noiz hartzen duzun eguzki apur bat, inoiz baino zuriago zaude.

Sagitaris Kuadrila berria aurkitu beharko zenuke, txikitakoa beharbada.

Capricorn Abilitate berezia eukiko duzu aste honetan, eskulanetan batez ere.

Aquarius Ez begiratu hainbeste egitegiari, oraindik bi aste falta dira San Juanetarako.

Piscis Eman dizuten gomendioa praktikan jarriko bazenu, hobeto ibiliko zinateke.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• BEGOÑA MARKAIDEREN GOMENDIOA •



Begoñak eguneroko gauzetatik irtetea gomendatzen digu, ez lanetik bakarrik, etxeko girotik ere bai. Horretarako, kirol piska bat egitea gomendatzen digu, mendira joan ahal den neurrian, eta udaberrian gaudenez, gauza ona eta polita da toki berriak ezagutzea. "Niri asko gustatzen zait berde desberdinak ezagutzea, toki desberdinetako berde-guneak ezagutzea". Horretaz gain, astean zehar gehienok, ez dugunez denbora asko izaten, asteburuetan egunkariak ateratzen dituzten gehiagarri bereziak irakurtzea gomendatzen digu, munduan gertatzen denarekin ere piska bat enteratzeko, "nik *El Mundok* ateratzen dituen gehigarriak irakurtzen ditut eta denbora eta gogoia dudanean, liburuak ere bai."

• PROGRAMAZIOA •



6 Igandea

- 3.00 Hauteskundeak: Informatiboa.
- 10.00 Hauteskundeak: Saio berezia

7 Astelehena

- 1.30 Eguerdiko Berriak
- 1.35 Hauteskundeak: saio berezia
- 8.8.30.9 Berriak
- 9.30 Mondra Sport
- 10.00 Asteko Zinea: "Zergatik Panpox"

8 Asteartea

- 1.30 Eguerdiko Berriak
- 1.35 Mondra Sport
- 8.8.30.9 Berriak.
- 9.30 Bakarka: Gorordo
- 10.00 Asteko Zinea: "Zergatik Panpox"

9 Asteazkena

- 1.30 Eguerdiko Berriak
- 1.35 Bakarka: Gorordo
- 8.8.30.9 Berriak
- 9.30 Tertulixan.
- 10.00 Asteko Zinea: "Zergatik Panpox"


10 Osteguna

- 1.30 Eguerdiko Berriak
- 1.35 Tertulixan
- 8.8.30.9 Berriak
- 9.30 ATBketan.
- 10.00 Asteko Zinea: "Zergatik Panpox"

11 Ostirala

- 1.30 Eguerdiko Berriak
- 1.35 ATBketan
- 8.8.30.9 Berriak
- 9.30 Monterock.
- 10.00 Asteko Zinea: "Zergatik Panpox"

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

GURUTZEGRAMA
 Horizontalek 1.ASA. 4. Enl. 8. Nabarmen 10. Tiarra 11. 10. 12. Zortikar. 14. Zal. 15. Kostalde. 18. Otu. 19. Noiz.
Bertirikak 1. Anizeko. 2. Saio. 3. Abartsu. 4. Eratzan. 5. Um. 6. Letaldi. 7. Inor. 9. Art. 13. Xalo. 16. Or. Ez. **JEROLIFIKOA**
 Lotsa.

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
 Tfnoa: 76 06 78
 ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 98 94

LIPOESKULTURA eta ZELULOLIPOLISIA

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Cruz, 24-1a (1a eskailera)
 ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

Monte taberna

Maalako errabala, 11
 Tfnoa: 79 20 56



ame



ame..sukaldeak Zerkaosteta, 3 Tfinoa: 79 15 03 ARRASATE